

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Hasierako onespena ematea Andoingo 3 poligonoko 248 lurzatiaren xehetasun azterketari

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko apirilaren 19an hartutako erabakiaren bidez, hasierako onespena eman zaio, baldintzekin, I. M. P.k sustatutako Andoingo 3 poligonoko 248 lurzatiaren eraikuntza baldintzak aldatzeko xehetasun azterketari, O. P. L. arkitektoak idatzitako dokumentu teknikoaren arabera. Xehetasun azterketa horrek Asparreneko HAPOn ezarritako nahitaezko fatxada-lerroa aldatzea du helburu, aipatutako lurzatiaren iparraldeko mugan.

Bat etorri ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, 98.1 artikuluan jasotakoarekin, aipatutako espedientea jendaurrean jartzen da udal idazkaritzan, 20 eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aztertu ahal izateko eta egoki jotzen diren erreklamazioak eta oharrak aurkezteko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2021eko apirilaren 21a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ